

Porteriako lanak hasi dira inguruko etxeen ikuskapenekin

Azken eguneratzea: Astelehena, 30 Urtarrila 2023 19:53

Argitaratua: Astelehena, 30 Urtarrila 2023 19:53



Datozen astetan, inguruko etxebizitzaren azterketa teknikoa burutuko da. Ikuskapenen helburua, eraispenerako lanak hasi aurretik etxebizitzaren egoera dokumentatzea izango da

Lanen hasieraren gertutasuna medio, Udalak orain hasiko diren fase desberdin eta afekzioei buruzko informazioa helarazi zien Ezkiaga eta Porteria inguruko bizilagunei uztailaren 12an eta abenduan egindako bileretan. Ia bi urte irautea espero diren lanen nondik norakoak eta xehetasunak jakinaraztea garrantzitsua dela irizten bait dute udal agintariek. Gauzak horrela, iritsi da lanen hasierako eguna.

Eraispeneren ondorioz, eraikinetako hainbat elementu lekuz aldatu edo gordeko dira. Esaterako, jada birlanatu da kapera ondoko ezkia Joan XXIII kaleko 12. zenbakiaren pareko lorategian. Amiantorenei eskultura aldiz, Udalak, CAFeko sindikatuekin eta Amiantoaz kaltetutakoen elkartearekin adostu ondoren lanak aurrera egin ahala ere lorategi horretara eramango da.

Obra inguruko etxeen ikuskapena

Lanen lehen fasean, Oria ibaiaren ezkerreko aldean handitzea eta bulego

eraikina ez ezik, beste eraikin guztiak eraistea aurreikusten da. Eraispen lanak hasi baino lehen Jose Migel Iturriotz kaleko 19 - 27 zenbaki bitarteko eta Joan XXIII kaleko 7, 8, 9, 10, 11 eta 12 zenbakietako etxebizitzak ikuskatuko dira. Horretarako, udaltzaingoak bandoak jarri ditu jabekideen atarietan, edozein kontsulta nahiz gertakari edukiz gero arduradunekin kontaktuan jarri ahal izateko.

Ikuskapenen helburua, obra lanak hasi aurretik haien egoera dokumentatzea izango da, obren ondorioz sortu litezkeen kalteak erregistratu ahal izateko. Datozen egunetan Arretxe Zerbitzuak S.L. enpresa, etxebizitza bakoitzeko jabearekin jarriko da harremanetan, ikuskaketa bisitak zehazteko asmoz.

Lanen lehen fasea

Ur Agentziaren arabera, etxeetako ikuskapen lanak amaitzean, lehen faseari dagozkion lanak hasiko dira eta hamar asteko iraupena izango dute. Obraren lehen bi asteetan, eremua hesitu eta prestatuko da, baita makineria eta langileen beharretarako azpiegiturak kokatu ere.

Ondoren, hirugarren astean, ur-jauziaren eraispena egingo litzateke eta laugarrenean, Porteria eremuko eraikinen eraispena. Lehena Porteria edo CAFeko sarrera nagusia izango da. Honen ondoren zubia eta segidan kaperaren ondoko eraikina eta kapera. Bulegoen eraikina eta bere pasabidea izango da ibaiatz bestaldeko lantegiarekin eratuko den lotura bakarra. Behin zubi berria prest dagoenean, azken eraikin hau eta oinezko pasabide zaharra ere eraitsi egingo dira.